eman ta zabal zaz
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA Y ANTROPOLOGÍA



# IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA MASTERRA

Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Hizkuntzen Irakaskuntza. MFPS/BBLH

www.ehu.eus

## AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako irakasleen prestakuntza masterraren (MFPS/BBLH) helburuak hauek dira: psikopedagogiako eta didaktikako prestakuntza eskaintzea hainbat ezagutza arlotako lizentziadunei eta gradudunei, irakasle lanetan aritu ahal izateko, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako etapa eta maila guztietan.

MFPS/BBLH masterra honako pertsona hauentzat pentsatuta dago: unibertsitateko titulu ofiziala lortu ondoren, irakaskuntzan lan egin nahi dutenak, oro har, hezkuntzan eta orientazioan interesatuta daudenak eta ikasleak prestatzeko beharrezkoak diren trebetasun profesional dituztenak, besteak beste, komunikatzeko gaitasuna, enpatia edota lidergotza.

## SARTZEKO ESKAKIZUNAK

- Lizentziaduna edo graduduna, hautatutako espezialitatearen arabera. Puntuak emateko irizpide orokorra, espezialitate guztietarako, Eusko Jaurlaritzaren lanbidean jarduteko tituluen zerrenden araberakoa izango da.
- B2 Euskara ezagutza.
- B1 Atzerriko Hizkuntza ezagutza.

## IRTEERA PROFESIONALAK

Irakasle lanetan aritzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako espezialitateetan, eta hezkuntza eta lan orientazioa ematea hezkuntza zentroetan.

Master honek bidea ematen du, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzetako irakaslearen lanbide arautuan jarduteko.

## OINARRIZKO INFORMAZIOA

**Eskolak emateko lekua:** Modulu generikoa, espezialitate guztietarako, hiru Campusetan ematen da.

Espezialitateak zentro hauetan baino ez dira ematen:

- *Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (Donostia)*: Hezkuntza Orientazioa; Giza eta Gizarte Zientziak; Natur Zientziak eta Matematika; Teknologia; Musika Hezkuntza, Dantza eta Arte Eszenikoak.
- *Arte Ederretako Fakultatea (Leioa)*: Hezkuntza Artistikoa
- *Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (Gasteiz):* Gorputz Hezkuntza; Hizkuntza eta Literatura

**Irakaskuntza mota:** Ikasgelakoa.

**Hizkuntza:** Euskara, gaztelania, ingelesa.

**Gutxi gorabeherako prezioa:** 1.100 €.

**Egutegia:** Irailetik ekainera, arratsaldez.

## IRAKASTORDUAK / IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte bat

| Nahitaezko irakasgaiak Modulu Generikoa + Praktikak | Hautazko Irakasgaiak Espezialitateak | Master Amaierako Lana | Guztira |
|---|---|---|---|
| 30 ECTS kreditu (18+12) | 24 ECTS kreditu | 6 ECTS kreditu | 60 ECTS kreditu |

## PRESTAKUNTZA PROGRAMA

- I. Hezkuntza prestakuntza psikopedagogikoaren modulu generikoa (18 ECTS)
- II. Espezialitate bakoitzaren prestakuntza didaktikorako modulu espezifikoa (24 ECTS): Hezkuntza Orientazioa, Giza eta Gizarte Zientziak, Teknologia, Natur Zientziak eta Matematika, Hezkuntza Artistikoa, Gorputz Hezkuntza, Hizkuntza eta Literatura.
- III. Practicum Modulua (18 ECTS)

  Nahitaezko praktikak ikastetxeetan(12 ECTS)
  Master Amaierako Lana (6 ECTS).

## HARREMANETARAKO

**Arduraduna:** Aitor Martxueta
**e-maila:** hefa.bblmasterra@ehu.eus

**Masterreko Idazkaritza:**
**Tel.:** 943 018 975 / 943 018 234 / 943 018 454
**e-maila:** hefa.bblhmasterra@ehu.eus

## ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK ETA BABESLEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



https://www.ehu.eus/eu/web/master/irakasleen-prestakuntza-masterra